



**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN,
BATXILERGOAN, LANBIDE HEZIKETAN ETA
HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE
GISA ARITZEKO GAITZEN DUEN
UNIBERTSITATE MASTER OFIZIALA.**

2010-2011 ikasturtea

HUHEZI Fakultatea
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

1. AURKEZPENA.

Ikasleek lortu beharreko kompetentzien arabera antolatu behar dira unibertsitate-ikasketa berriak. Irakasleen kasuan, lanbide arautua izanik, kompetentzia horiek Irakasle-masterra sortzeari buruzko ministro-aginduan zehazten dira (ECI/3858/2007, abenduaren 27a). Han jasotzen da *zein eskakizun bete behar den honako unibertsitate-titulu ofizialak egiaztatzeko: **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko Irakasle, Lanbide Heziketako Irakasle eta Hizkuntzen Irakasle***. Bertan azpimarratzen da hasierako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren beharra, kontuan hartuta zein funtzio berri esleitzen zaizkien bigarren hezkuntzako irakasleei zein lanbide heziketakoei. Horien artean, nabarmentzekoak dira bere ardurapeko arloak programatu eta irakastea, tutoretza-lanak egitea, ikasleak bideratu eta laguntzea ikasketa-prozesuan, familiarekin lankidetzan, eta orobat, ikasleen heziketa-orientazioa, orientazio akademikoa nahiz profesionala eta haren garapen intelektual, afektibo, psikomotor, sozial eta moralarekiko arreta.

Funtzio horiek lortzeak eskatzen du zenbait kompetentzia garatzea, gradu-ikasketek bultzatzen dituztenetatik askoz haratago. Besteak beste, **ezagutza sakona eskatzen du arlo espezifiko bakoitzaren ikasketa-/irakaskuntza-prozesuak planteatzen dituen arazoengatik, eta nerabeen garapen osoan laguntzeko prestakuntza**. Hortik, hain zuzen ere, gradu-ondoko honen beharra eta berau bereziki aipatutako kompetentziak garatzera bideratuta egotea.

Bi helburu orokor hauetan bildu daitezke Masterraren asmo nagusiak:

- Prestatzea gerora irakasle izango direnak behar dituzten ezagutza eta gaitasunetan, beraien bitzita profesionalen izango dituzten funtzioak modu ahalik eta eraginkorrenean betetzeko.
- Garatzea gerora irakasle izango diren horiengan irakaskuntzan aritzeko behar diren kompetentzia pertsonalak eta sozialak, ikasle taldeak gestionatzeko, bere praktikaz hausnartzeko eta taldeetan lana egiteko, besteak beste.

2. MASTERRAREN EZAUGARRIAK.

Hona hemen labur-labur, masterraren ezaugarriak:

Eskola mota: aurrez aurrekoak.

Iraupena: Ikasturte bat, irailtik ekainera. Masterraren amaieran *Master Amaierako Lana* aurkeztu beharko da.

Ordutegia: Lau saio astean (astelehenetik ostegunera) arratsaldean (16:00-20:00), saio teoriko-praktiko eta tutorearen laguntzaz egindako lanekin konbinatuta. Praktika-saioak goizez (9:00-14:00) egingo dira ikastetxeetan.

Hizkuntzak: Ikasketak euskaraz izango dira. Atzerriko hizkuntza batean B1 maila beharrezkoa izango da Masterra gainditzeko.

Kredituen antolaketa:

MATERIAK	ECTS KREDITUAK	ORDUAK (*)
Derrigorrezkoak		
Materia generikoak eta espezifikoak.	36	900
Practicumekoak	10	250
Master Amaierako Lanekoak	6	150
Hautazkoak		
Orokorrak edo hezkuntzako etapa/modalitatearen arabekoak	8	200
GUZTIRA	60	1500

(*) Kredituko ordu kopurua 25ekoa izango da, aurrez aurrekoak %40.

3. MASTERREAN SARTZEKO BALDINTZAK.

Baldintza akademikoak:

Masterrean sartu ahal izango dute unibertsitateko lizentziatu, diplomatu eta graduatu guztiek eta, oro har, graduondoko ikasketetarako gaitzen dituen unibertsitateko titulu ofizial bat duten guztiek, unibertsitateko irakaskuntza ofizialak ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak eta Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Irakasle izateko, beharrezkoa da lizentziatu, arkitekto edo ingeniari titulua izatea, edota gradu baliokideko titulua. Aldiz, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoa izateko, nahikoa da diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko titulua izatea.

Hala ere, kontuan izan beharko dugu, Hezkuntza administrazioari (Eusko Jaurilaritza) dagokiola irakaskuntzako postu ezberdinetarako beharrezko titulazioak ezartzea.

Masterreko Espezialitateetan sartzeko baldintzak:

- Sarbide zuzena ematen duten titulu bat izatea. (Ikus hurrengo puntuko taula)
- Espezialitate batera sarbide zuzena ematen duten titulurik ez duten ikasleek, espezialitateko horretako sarrera-froga bat gainditu beharko dute.

4. MASTERREKO ESPEZIALITATEAK.

Bederatzi espezialitate ezarri dira master honen prestakuntza-eskaintzan, arreta berezia eskainiz Euskal Autonomia Erkidegoko lan-eskaintza publikoan parte hartu ohi duten katedradunen kidegoetako eta bigarren hezkuntza, nahiz Lanbide Heziketako nola Hizkuntza Irakaskuntzako irakasleei, 1834/2008ko Errege Dekretuan araututakoaren arabera (2008.11.28 28ko BOE).

SARBIDE ZUZENeko TITULUAK	MASTERREKO ESPEZIALITATEAK		DBH, BATXILERGO, LANBIDE HEZIKETA ETA HIZKUNTZEN IRAKASLEEN ESPEZIALITATEAK
<ul style="list-style-type: none"> - Lizentziaturak: Biologia Bioteknologia Ingurumen Zientziak Itsas Zientziak Fisika Geologia Matematikak Kimika Biokimika Informatika Goi-Mailako Ingeniaritzak Arkitektura - Arkitekto teknikoa. - Ingeniari teknikoa. 	Zientzia Esperimentalak	Zientziak eta Teknologia	<ul style="list-style-type: none"> -Fisika-Kimika -Biologia-Geologia
	Matematika		-Matematika
	Teknologia		-Teknologia
<ul style="list-style-type: none"> - Lizentziaturak: Historia. Geografia Humanitateak Artearen Historia 	Gizarte-Zientzia, Geografia eta Historia	Gizarte Zientziak	-Geografia eta Historia
<ul style="list-style-type: none"> - Lizentziaturak: Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza Ekonomia Zuzenbidea Lan Zientziak Soziologia Zientzia Politikoak Humanitateak-Enpresa - Diplomaturak: Enpresa Zientziak Lan Harremanak 	Administrazioa eta Enpresa		-Enpresa-kudeaketa
<ul style="list-style-type: none"> - Lizentziaturak: Ikus-entzunezko Komunikazioa Publizitatea eta Harreman Publikoak Kazetaritza 	Komunikazio- prozesu eta bideak		-Komunikazio-prozesu eta bideak
<ul style="list-style-type: none"> - Lizentziaturak: Filologia Klasikoa. Euskal Filologia Ingeles Filologia Itzulpen-gintza eta Interpretazioa (Ingelesa) 	Hizkuntza eta Literatura		<ul style="list-style-type: none"> -Euskara -Gaztelania eta Literatura -Ingelesa
<ul style="list-style-type: none"> - Lizentziaturak: Pedagogia Psikopedagogia Psikologia 	Orientazio Psikopedagogikoa eta profesionala		-Hezkuntza-orientazioa
<ul style="list-style-type: none"> - Lizentziaturak: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak 	Heziketa Fisikoa eta kirol-jarduerak		-Heziketa fisikoa eta kirol- jarduerak

Taulari buruzko OHARRAK: Beharrezkoa izango da HUHEZIK definitutako espezialitate guztietan ikasle kopuru minimo bat taldeak eratu ahal izateko .

5. GARATU BEHARREKO KONPETENTZIAK.

Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen ditu irakasle-lanbide hauek. Abenduaren 27ko ECI/3858/2007 Aginduak arautzen du Irakasle-lanbidea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan. Agindu horren arabera, honakoak dira ikasleek lortu beharreko konpetentziak:

1. Dagokion espezializazioko ikasgaietako curriculumaren arabera edukiak ezagutzea, eta orobat, irakaskuntza- eta ikasketa-prozesuei buruzko ezagutza didaktikoak. Lanbide heziketarako, dagokion lanbidearen ezagutza ere eskatuko da.
2. Irakaskuntza- eta ikasketa-prozesua planifikatu, garatu eta ebaluatzea, heziketa-prozesuak indartuz irakaskuntza bakoitzari dagozkion konpetentziak eskuratzeko. Horretarako, ikasleen hasierako maila eta prestakuntzari erreparatuko zaio, modu indibidualean, zein zentroko beste irakasle eta profesionalakiko elkarlanean.
3. Informazioa (ahozkoa, inprimatutakoa, ikus-entzunezkoa, digitala edo multimedia) bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatzea; informazio hori ezagutza bihurtzea eta irakaskuntza- eta ikasketa-prozesuetan aplikatzea espezializazioari dagozkion ikasgaietan.
4. Ikastetxe batean ezarriko den curriculum zehaztea, lankidetzan arituz hura planifikatzen; metodologia didaktikoak garatu eta ezartzea, taldekoak zein pertsonalizatuak, ikasleen aniztasunera egokituta.
5. Ikasketa-guneak diseinatu eta garatzea, arreta berezia eskainita honako arloei: ekitatea, heziketa emozionala eta baloreena, eskubide- eta aukera-berdintasuna gizon eta andreen artean, hiritar-heziketa eta jendartearen bizitza erraztuko duten giza-eskubideekiko begirunea, erabakiak hartzea eta etorkizun iraunkorra eraikitzea.
6. Estrategiak eskuratzeko ikaslearen ahalegina sustatzeko eta bere kabuz zein beste batzuekin ikasteko gaitasuna indartzeko, eta orobat, pentsatzeko eta erabakitze trebetasunak garatzeko, horretara, haren autonomia, konfiantza eta inizatiba sendotuz.
7. Ikasgelako elkarrekintza eta komunikazio-prozesuak ezagutzea, beharrezko jendarte-trebetasun eta gaitasunak menperatzea, ikasgelan ikasketa eta bizikidetzaren bultzatzeko eta diziplina-arazoei aurre egin eta gatazkak konpontzeko.
8. Jarduera formalak eta ez-formalak diseinatu eta gauzatzea, zentroa parte-hartze eta kultura-gunea bihurtze aldera kokatuta dagoen ingurunean. Tutore- eta orientatzaile-lanak egin lankidetzan eta modu koordinatuan; parte hartu irakaskuntza- eta ikerketa-prozesuen ebaluazio, ikerketa eta berrikuntzan.
9. Hezkuntza-sistemaren araudia eta antolaketa instituzionala ezagutzea, eta orobat, ikastetxeetan ezartzen diren kalitate-hobekuntzarako ereduak.
10. Irakaskuntzaren ezaugarri historikoak ezagutu eta aztertzea, haren egungo egoera, aurreikuspenak eta garai bakoitzeko errealitate sozialarekiko harremana.
11. Familiei informazioa eta aholkuak eskaini beren seme-alaben ikasketa- eta irakaskuntza-prozesuari buruz, zein haien orientazio pertsonal, akademiko eta profesionalari buruz.

6. METODOLOGIA

Masterrean erabiltzen den metodologiak bat egiten du haren helburu eta asmoekin. Era berean, Mondragon Unibertsitatearen eredu didaktikoaren printzipioak aintzat hartzen ditu. Hainbat estrategia didaktiko-metodologikoren emaitza da; arazoetan oinarritutako ikasketan (AOI) ardatzen da eta arazo horiei irtenbidea ematea, kasuak aztertzea edo proiektuak gauzatea du helburu.



7. PRACTICUMA.

Kanpoko praktikak ikasturtean zehar egingo dira eta hiru multzotan daude banatuta: alde batetik, moduluen garapenerekin lotutako bi praktika aldi, ikastetxe eta ikasgelaren ezaugarri desberdinak izango dituenak aztergai; eta bestetik, espezialitateko ikasgaien ikaste-irakaste prozesuen behaketan arreta jarriz, irakasle izango denaren garapen pertsonalera bideratutako praktika aldia.

Praktikak akreditatutako ikastetxe batean egingo dira eta irakasle-tutoreen laguntza izango dute (Masterreko irakasle bat eta Bigarren Hezkuntzako irakasle bat, ikasleak matrikulatu den espezialitate berekoa).

8. MASTER AMAIERAKO LANA.

Jatorrizko lana izango da, eta bertan hezkuntza-proposamen bat garatuko da, norberak ezaugarritu eta marraztutako eredu didaktikoan oinarrituta. Honetarako ikasturtean zehar landu diren hezkuntzaren dimentsio eta aspektu desberdinak kontutan izango ditu, modulu ezberdinetan landutakoak, hala nola Practicumak eskaintzen duen eskola-ikaskela errealitatearen behaketatik eratorritako ezagutzak. Master Amaierako Lana banaka edo taldean egin ahal izango dute ikasleek Masterreko irakasle baten tutoretzapean, planteatutako gaiaren eta ikaslea egiten ari den espezialitatearen arabera. Masterraren amaieran publikoki defendatu beharko da.

9. MASTERRAREN EGUTEGIA. 2010/2011 IKASTURTEA

Ikasturtearen hasiera: Irailak 30

Ikasturtearen amaiera: Ekainak 28

Master Amaierako Proiektuen aurkezpenak: Ekainak 20 eta uztailak 1 artean.

Oporraldiak: Gabonak (abenduak 20 - urtarrilak 7) eta aste santua (apirilak 18-29)

Jai egunak: urriak 12, azaroak 1 eta abenduak 6 eta 8.

IRAILA **URRIA** **AZAROA**

A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5					1	2	3	1	2	3	4	5	6	7
6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14
13	14	15	16	17	18	19	11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21
20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28
27	28	29	30				25	26	27	28	29	30	31	29	30					

MODULU GENERIKOAK: 12 ECTS

- Jendartea, familia eta heziketa (4 ECTS): 40 ordu P/ 60 ordu EP(1)
- Heziketa-prozesu eta testuinguruak (4 ECTS):40 ordu P/ 60 ordu EP
- Ikasketa eta nortasunaren garapena (4 ECTS): 40 ordu P/ 60 ordu EP
- Practicum I -Ikastetxearen azterketa: goizez (3 ECTS): 30 ordu P/45 ordu EP
- Practicum I: Mintegiak
- Practicum II- Ikasgelaren azterketa: goizetik (3 ECTS): 30 ordu P/45 ordu EP

ABENDUA **URTARRILA** **OTSAILA**

A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5						1	2		1	2	3	4	5	6
6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13
13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20
20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27
27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30	28						
							31													

ESPEZIALITATEKO KOMUNAK: 9 ECTS

- Berrikuntza irakaskuntzan eta hezkuntzari begirako ikerketarako hastapenak (4 ECTS): 40 ordu P/ 60 ordu EP
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak hezkuntzan (3 ECTS): 30 P/45 EP
- Irakaskuntza-/ikasketa-prozesuaren planifikazioa: Sekuentzia Didaktikoa atontzea (2 ECTS): 20 ordu P/ 30 ordu EP

MARTXOA **APIRILA** **MAIATZA**

A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6					1	2	3							1
7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10	2	3	4	5	6	7	8
14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17	9	10	11	12	13	14	15
21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24	16	17	18	19	20	21	22
28	29	30	31				25	26	27	28	29	30		23	24	25	26	27	28	29
														30	31					

ESPEZIALITATEKO IKASGAIK: 15 ECTS

- Espezialitateko ikasgaiak (15 ECTS): 150 ordu P/ 225 ordu EP
- Practicum III-Arloen lanketa: goizetik (4 ECTS): 40 ordu P/ 60 ordu EP

EKAINA **UZTAILA** **ABUZTUA**

A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5					1	2	3	1	2	3	4	5	6	7
6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14
13	14	15	16	17	18	19	11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21
20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28
27	28	29	30				25	26	27	28	29	30	31	29	30	31				

MASTER AMAIERAKO PROIEKTUA: 6 ECTS

- MAParen prestaketa
- MAParen aurkezpena

OHARRAK:

- P: saio presentzialak; EP: saio ez presentzialak
- Hautazko ikasgaien modalitatea on-line eta erdi-presentziala: 4 ECTS/ lauhileko

ORDUTEGIA

Astelhenetik ostegunera, 16:00-20:00

■ Jai egunak ■ Oporrak eta zubiak

10. IKASKETA PLANGINTZA-ren DESKRIBAPEN LABURRA

MODULUAK	ECTS	DESKRIBAPEN LABURRA
MODULU GENERIKOA	12 ECTS	Modulu honek espezialitate guztientzako komuna eta oinarrikoa den formazio psikologikoa, pedagogikoa eta soziologikoa hartzen du bere baitan. Lehen seihilekoan zehar emango diren hiru ikasgaien bitartez landuko da modulu generikoa. Gaur egungo gizartearen aurrean, hezkuntzaren zergatiak eta zereginak aztertuko dira lehenik eta behin. Ondoren, ikastetxe mailara jauzia eginez, hauen antolaketa ereduak eta horien kudeaketan parte hartzen dituzten organo eta agenteen zereginak aztertuko dira. Bukatzeko, ikaste-irakaste prozesuan aintzat hartu beharreko osagaiak (irakaslea, ikasleak eta aztergaiak) eta haien artean ematen diren interakzioak landuko dira. Horrez gain, orientazioa kontzeptua ulertu eta aurrera eramateko tresnak ezagutzea eta erabiltzea ditu helburutzat moduluaren azken ikasgaiak.
MODULU ESPEZIFIKOETA KO KOMUNAK	9 ECTS	Espezialitate ezberdinentzako komunak diren hiru ikasgai edo aztergai bildu dira hemen. Hauek ere lehen seihilekoan landuko dira. Jarraian, ikasgai bakoitzaren asmo nagusia jasotzen dira. Batetik, Informazio eta Komunikaziorako Teknologiek (IKTek) irakaskuntzan dituzten aukerak eta mugak aztertzeaz gain, egun gehien erabiltzen diren baliabideak ezagutzea eta erabiltzea. Bestetik, irakaskuntza prozesuen ikerketak etengabeko hobekuntzarako eta, oro har, heziketaren kalitatea hobetzeko duen garrantziaz hausnartzea eta, nola ez, horretarako tresna edo estrategia ezberdinak ezagutzea. Aurreko bi ikasgai horiek modulu generikoekin batera (zeharka) landuko dira. Azkenik, edozein espezialitatean nahitaezkoa den programaketa eta curriculum plangintzari begira aintzat hartu beharreko aspektuak lantzea da modulu honen hirugarren ikasgaiaren helburu nagusia.
MODULU ESPEZIFIKOA	15 ECTS	Modulu honetan, espezialitateari begira diseinatutako ikasgaiak biltzen dira. Bigarren seihilekoan lantzen dira. Espezialitate guztiek, orientazio psikopedagogikoa eta profesionala espezialitateak izan ezik, egitura berdina dute. Hiru bloke nagusi osatzen dituzte espezialitateok: lehenak, espezializazioari lotutako ikasgai eta haien aztergaiak hezkuntza- eta kultura-balioa ezagutzea du helburu nagusizat; bigarren blokean, espezialitateak lantzen diren kompetentzien ezagutza eta horiek garatzeko estrategi didaktiko aproposenen lanketa egingo da; azkenik, hirugarren blokean espezialitateen inguruan eman diren hezkuntza-ikerketen ildoak ezagutu eta horietaz hausnartuko da. Orientazio psikopedagogikoa eta profesionala espezialitatean honako hiru bloke hauetan banatuko da: lehena hezkuntzako orientaziorako oinarriak landuko ditu; bigarren blokeak berriz orientazioa eta tutoretza funtzioak ezberdintzea du helburu nagusizat; azken blokean, orientazioa eta aniztasunarekiko arreta landuko da.

MODULUAK	ECTS	DESKRIBAPEN LABURRA
PRACTICUMA	10 ECTS	<p>Practicuma hiru ataletan banatu da:</p> <p>-Practicum I: lehen atal hau modulu generikoari lotuta doa gehien bat. Modu trinkoan (bi astetan, astelehenetik ostiralera eta goizez) landuko da lehen seihilekoan. Lehen praktika aldi honen helburu nagusia da, ikasleek praktikak egingo dituzten ikastetxeen testuingurua eta ezaugarri nagusiak ezagutzea. Modulu generikoan landuko diren kompetentziekin bat egin nahi da, behaketa lan baten bitartez.</p> <p>-Practicum II: hau ere modu trinkoan egingo da, bi astez, astelehenetik ostiralera, goizez. Helburua, batetik, ikasgelako giroa ezagutzea eta bertan parte hartzen duten aldagaiak aztertzea eta balioestea da, duten garrantziaz kontzientzia hartzeko eta bestetik, irakasle lanbidearen erantzukizunaz jabetzea.</p> <p>-Practicum III: espezialitateko ikasgaiak lantzen diren bitartean egingo da praktika aldi hau, bi fasetan banaturik: lehenengoa ostiral goizak erabiliko ditu eta espezialitateko ikasgaiari lotutako helburuak, edukiak, metodologiak, ebaluazioa eta erabiltzen diren baliabideak izango ditu aztergai. Bigarren fasea modu trinkoan landuko da eta espezialitateari lotutako ikasgaietan ikastetxean eta gelan ematen diren arazo nagusienak identifikatu eta horietaz hausnartzeaz gain, hauek hobetzeko proposamenak diseinatuko dira. Aukera dagoeneko kasuetan, ikasleek praktikan jarriko dituzte proposamenok. Bakoitzak bere buruaz hausnarketa egitea da praktika hauen helburu nagusia. Norberak irakasle gisa dituen alderdi indartsuak eta ahulak identifikatzen saiatuko da, ondoren, horietaz hausnartu eta gerora begira hobetu beharrekoen alderdiak lantzeko.</p>
MASTER AMAIERAKO LANA	6 ECTS	<p>Jatorrizko lana izango da, eta bertan heziketa-proposamen bat garatuko da. Proposamen honek eredu didaktiko baten aurkezpen eta defentsa jasoko du eta honetan oinarrituko den unitate didaktiko bat. Honetarako ikasturtean zehar landu diren hezkuntzaren dimentsio eta aspektu desberdinak kontutan izango ditu, modulu ezberdinetan landutakoak, hala nola Practicumak eskaintzen duen eskola-ikasgela errealitatearen behaketatik eratorritako ezagutzak. Master Amaierako Lana banaka edo taldean egin ahal izango dute ikasleek Masterreko irakasle baten tutoretzapean, planteatutako gaiaren eta ikaslea egiten ari den espezialitatearen arabera. Masterraren amaieran publikoki aurkeztu beharko da.</p>
HAUTAZKOAK	8 ECTS	<p>HUHEZIK urtero egingo du hautazko ikasgaien eskaintza, ondorengo ikasgaiak eta irakaskuntza eremuan sor daitezkeen formazio beharrei erantzunez diseinatuko dituen beste batzuen artean. Aurtengo ikasturterako eskainiko dituenak bi hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Heziketa eleanitza eta kulturartekoa. - Ikasgelako giroaren inguruko tailerra. - Hizkuntza-tailerra <p>Hala ere, aurreikusita zeuden beste hauek Masterraren curriculumean integratu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako sarrera - Batxilergoarako sarrera - Prestakuntza-zikloetarako sarrera - Hizkuntzen Irakaskuntzarako sarrera

10.1. MATERIAK ETA IRAKASLEAK. 2010/2011 IKASTURTEA.

	MATERIA	ECTS	KOORDINATZAILEA
MODULU GENERIKOA	Gizartea, familia eta heziketa	4 ECTS	Joseba Longarte
	Heziketa-prozesu eta testuinguruak	4 ECTS	Juanjo Otaño
	Ikasketa eta nortasunaren garapena	4 ECTS	Olaia Jimenez
MODULU ESPEZIFIKOA: KOMUNAK	Berrikuntza irakaskuntzan eta hezkuntzari begirako ikerketarako hastapenak	4 ECTS	Iñaki Gartzia
	Irakaskuntza-/ikasketa-prozesuaren planifikazioa: Sekuentzia Didaktikoa atontzea	2 ECTS	Xabier Arregi
	Informazio- eta komunikazio-teknologiak hezkuntzan	3 ECTS	Maite Goñi
MODULU ESPEZIFIKOA: ESPEZIALITATEAK	Zientzia Esperimentalak	15 ECTS	Xabier Arregi
	Gizarte-zientzia, Geografia eta Historia	15 ECTS	Iñigo Ramirez de Ocariz
	Matematikak	15 ECTS	Oihana Elorza
	Teknologia	15 ECTS	Eugenio Astigarraga
	Orientazio Psikopedagogikoa eta profesionala	15 ECTS	Maite García
	Heziketa Fiskikoa eta kirol-jarduerak	15 ECTS	Izaskun Uribesalgo
	Hizkuntza eta Literatura	15 ECTS	Idurre Alonso
	Administrazioa eta Enpresa	15 ECTS	Begoña Ugarte
	Komunikazio-prozesu eta bideak	15 ECTS	Aitor Zuberogoitia
PRACTICUMA	Practicum I, II eta III	10 ECTS	Olaia Jimenez
MASTER AMAIERAKO LANA	MAP	6 ECTS	Masterreko koordinazioa
HAUTAZKO IKASGAIAK	Ikasgelako giroaren inguruko tailerra	4 ECTS	Maite García
	Heziketa Eleanitza eta kulturarteko	4 ECTS	Monika Madinabeitia
	Hizkuntza-tailerra	4 ECTS	Itziar Plazaola
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako sarrera		Curriculumean integratuta
	Batxilergorako sarrera		
	Prestakuntza-zikloetarako sarrera		
	Hizkuntzen Irakaskuntzarako sarrera		

11. MATERIEEN KOORDINATZAILEEN HELBIDE ELEKTRONIKO ETA LUZAPENAK

KOORDINATZAILEA	HARREMANETARAKO
Aitor Zuberogoitia	aitor_zuberogoitia@huhezi.edu; luz.
Begoña Ugarte	bugarte@eteo.mondragon.edu
Eugenio Astigarraga	eugenio_astigarraga@huhezi.edu; luz. 204
Iñaki Gartzia	inaki_garcia@huhezi.edu; luz. 150
Iñigo Ramirez de Ocariz	inigo_ramirezdeokariz@huhezi.edu; luz. 177
Itziar Plazaola	itziar.plazaola@gmail.com
Izaskun Uribesalgo	izaskun_uribesalgo@huhezi.edu; luz. 178
Joseba Longarte	joseba_longarte@huhezi.edu; luz. 161
Juanjo Otaño	juanjo_otano@huhezi.edu; luz. 175
Maite García	maite_garcia@huhezi.edu; luz. 151
Maite Goñi	mgoni@huhezi.mondragon.edu; luz. 197
Monika Madinabeitia	monika_madinabeitia@huhezi.edu; luz. 143
Idurre Alonso	idurre_alonso@huhezi.edu ; luz. 184
Oihana Elorza	oihana_elorza@huhezi.edu; luz. 173
Olaia Jimenez	olaia_jimenez@huhezi.edu; luz. 161
Xabier Arregi	xabier_arregi@huhezi.edu; luz. 154
Masterreko koordinazioa	iker_azkue@huhezi.edu; luz. 145 xabier_arregi@huhezi.edu; luz. 154